



mendinet

2016 | 2020

jarduereen memoria



mendinet
"ORRIK EKA-TZA TALDEA" GRUPU DE AKTION LOCAL



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKARAREN KULTURA,
JASAGARRITASUNA
ETA INKLUSIAREN ERAILA
DEPARTAMENTU DE ORGANIZAZIO
EKOINOMIKO, EKOINOMIKO
ETA INKLUSIAREN


20 urte baino gehiago Euskadin Leader diru-laguntzak kudeatzen



Mendinet Leader diru-laguntzen kudeaketaz arduratu da Euskadin azken hiru programazio epealdietan: Leader + (2002-2007), Leader 2007-2013, eta Leader 2016-2020.

Azken aldi horren hasieran, lankidetzahitzarmen bat sinatu genuen Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzarekin, **azken Leader Estrategia** garatzeko eta ezartzeko.

Gure bazkide diren erakundeen bitartez Euskadiko landa-eremu guztietan gaude.



Hazi Fundazioa


Hazi Fundazioa Eusko Jaurlaritzaren erakunde instrumentala da. Fundazioaren eginkizuna proiektu estrategikoak koordinatzea eta katalizatzea da, elikaduraren eta basogintzaren balio-kateen lehiakortasuna eta iraunkortasuna bultzatzeko, bai eta Euskadiko landa eta itsasertz ingurunea dinamizatzeko ere.



18 Landa Garapeneko Elkarte

Landa-garapeneko elkarteak Euskadin landa-garapenaren arloan erreferenteak diren erakundeak dira. Eskualdeko erakunde garrantzitsuenen topagune dira, eta landa-eremuen garapena bultzatzea dute helburu. Eskualde bakoitzean bat dago.

→ Añana, Izki, Lautada, Mairuelegorreta, Arabako Errioxa eta Zabaia Enkarterri, Gorbeialde, Jata Ondo, Lea Artibai, Urkiola eta Urremendi Behemendi, Deba Garaia, Debemen, Goimen, Tolomendi eta Urkome.




Leader programa

Leader “Liaison entre actions de développement de l’économie rurale” edo “Landa-ekonomiaren garapen-jardueren arteko harremanak” izeneko ekimenaren akronimoa da. Europako Batzordeak 90eko hamarkadan abian jarri zuen ekimena landa-eremuen garapen ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa bultzatzeko helburuarekin.

Leader programaren ezaugarri nagusia da metodologia propioa erabiltzen duela tokiko eragileek estrategiak diseinatu eta abian jarri, erabakiak hartu eta beren landa-eremuak garatzeko baliabideak esleitu ditzaten. **“Bottom-up” ikuspegia** deritzona jarraitzen dute, non estrategiak behetik gora ere diseinatzen diren: lurraldean bizi diren eta bertan lan egiten duten pertsonetatik erakundeetara.

Euskadin, Mendineten Leader programaren helburua izan da Euskadiko Leader zonetan garapen ekonomikoa bultzatzea, lan-aukerak sustatzea eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetuko duten ekipamenduak eta zerbitzuak bermatzea. Hori guztia landa-eremuetako biztanleria mantentzeko eta hazteko helburuarekin.

Berrikuntzaren eta Mendinet osatzen duten erakunde guztien arteko sare-lanaren bidez, estrategiaren aplikazio-eremuan garapen iraunkor integratua eta kalitatezkoa lortzen lagundu dugu.



Leader diru-laguntzen eragina 2016-2020 epealdian

	Ekintzailetza	1.032.406 €
	Inbertsioak	15.187.298 €
	Kontratazioa	315.450 €
	Azpiegiturak	33.824.916 €
	Etxebizitza	2.096.105€
	Guztira	52.456.175 €

Datuak guztira

		
464	16.880.953,88 €	76.589.160,43 €
Diruz lagundutako proiektu pribatuak	Proiektu pribatuetara bideratutako laguntza (€)	Proiektu pribatuetan egindako inbertsioa (€)
		
608	32.987.951,91 €	122.027.637,28 €
Diruz lagundutako proiektu publikoak	Proiektu publikoetara bideratutako laguntza (€)	Proiektu publikoetan egindako inbertsioa (€)
		
104	270	51%
Emakumeek sortutako enpresak	Sortutako lanpostuak-emakumeak	Sortutako lanpostuak-emakumeak (%)
		
108	265	49%
Gizonek sortutako enpresak	Sortutako lanpostuak-gizonak	Sortutako lanpostuak-gizonak (%)

* **Sortutako enplegua:** sortutako benetako enpleguen kopurua da, ordainketa eginda duten onartutako espedienteetan kalkulatuta.
Datuen bilketa data: 2023/12/22

Landa-mailaren araberako datuak (G)

Lagundutako proiektuen kopurua

G1	G2	G3
417	371	312

Bideratutako laguntza (€)

G1	G2	G3
18.120.167,61 €	17.124.624,99 €	15.513.039,50 €

Lagundutako proiektuetan egindako inbertsioa (€)

G1	G2	G3
70.976.567,98 €	64.137.029,42 €	67.666.374,63 €

Kuartango Lab

Kuartango (Araba)

NABARMENDUTAKO
PROIEKTU BATZUK



Kuartango Lab funtzio anitzeko gune bat da, udalak berriztu duen bainuetxe zaharraren eraikinean kokatua.

Azken urteetan erabili gabe egon ondoren, Kuartangoko Udalak, prozesu parte-hartzaile baten bidez, 5.000 m2 eta lau solairu baino gehiagoko espazioa birmoldatzea erabaki zuen, erabilera berriak emateko. Hainbat fasetan, lokalak eta aretoak egokitzeko obrak egin dira, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Orain coworking espazio bat du, eta bertan, profil desberdineko hainbat enpresa, antzoki bat eta enpresa berriak sortzeko beste gune batzuk daude.

Añanako (Arabako Haranak) eskualde osoa erakargarri egiten ari den proiektua da.

“Azken bost urteetan, Kuartangoko biztanleria % 10 hazi da eta, hein handi batean, proiektu honi esker izan da”

diote udaletik

Kuartangok Mendineteko Smart Rural proiektuan hartu du parte.

Proiektuaren inbertsioa (€): 964.749
Jasotako Leader diru-laguntza (€): 510.352

Dronetikan airworks

Zalduondo (Araba)



Iker eta Beñat Arabako Lautadako bi gazte dira, eta dronak erabiliz airetiko argazkiak egiten dituen enpresa bat sortzea erabaki zuten.

Airetiko argazki gehienak ikus-entzunezko produkziara zuzenduta daude, baina gaur egun dronak sektore guztietan erabiltzen dira: nekazaritza, basogintza, arkitektura, obra zibila, bilaketa eta salbamendua, etab.

Egin beharreko lan guztien ekoizpen eta kudeaketa osoaz arduratzen dira, bai sormenari eta baita ikuspegi teknikoari dagokionez ere. "Ikus-entzunezko errealitate berriaren beharretara egokitzen gara, kalitatezko produktu profesional bat lortzeko formatu eta tendentzia berriak arakatzuz".

“Leader diru-laguntza izugarria izan da guretzat”

Proiektuaren inbertsioa (€): 27.857
Jasotako Leader diru-laguntza (€): 12.202

Galua eguneko zentroa

Karrantzako Harana (Bizkaia)



Alazne ekintzailea da, eta beharra aukera bihurtu zuen. "Mendekotasuna zuen adineko pertsona baten zaintzailea nintzen, eta nire eskualdean (Enkarterrietan) gertuen zegoen eguneko zentroa 30 kilometrora zegoela ikusi nuenean, proiektu honi ekitea erabaki nuen".

Galua Eguneko Zentroaren egiteko nagusia adineko pertsonen laguntza espezializatua eskaintzea da, beren eguneroko bizitzako jarduerak autonomia handiagoz garatu ditzaten. Zentroan sartu bezain pronto, diziplina anitzeko taldeak (osasun- eta gizarte-taldeak), Arreta Plan Pertsonalizatu bat egiten du, artatutako pertsonarekin eta haren familiarekin edo zaintzaileekin adosten dena. Une honetan 7 pertsonari ematen diete zerbitzua.

“Bereziki eskertu nahi dut eskualdeko Landa Garapeneko Elkartearengandik jaso dudana babesa”

Proiektuaren inbertsioa (€): 121.474
Jasotako Leader diru-laguntza (€): 66.447

Orexa

Orexa (Gipuzkoa)



Orexa 104 biztanle dituen udalerria da, eta 2009tik ari da herriko jendea udalaren erabakietan modu aktiboan inplikatzeko. Udal estrategiaren lau helburuak hauek dira: herria gazte mantentzea, jarduera ekonomikoa sortzea, subiranotasun energetikoa ezartzea eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea.

Azken urteotan hainbat proiektu egin dituzte: ostatu birmoldatu dute eta orain taberna-jatetxea, eta aldi berean, udalerraren kohesio sozialerako gunea da. Hainbat eraikinetako teilatuetan eguzki-plaka fotovoltaiakoak jarri dituzte; eta orain arteko lanik garrantzitsuenak gazteak dinamizatzea izan da, izan ere, gaur egun, biztanleen % 30ek 25 urte baino gutxiago dituzte.

Aipatutako hainbat proiektuk Leader diru-laguntza jaso dute.

Orexak Mendineten Smart Rural proiektuan parte hartu du.

“Kontsumitzen dugun energiaren % 70 ekoizten dugu”

Proiektuaren inbertsioa (€): 617.762
Jasotako Leader diru-laguntza (€): 373.907

Amañe- gourmet denda

Zeberio (Bizkaia)



Zeberioko plazatik pasatzen zen bakoitzean Nekane lonja huts bat ikusten zuen. “Kokapena hain ona iruditzen zitzaidan, merezi zuela arriskatzea eta ostalaritzako lokal bat irekitzea”, dio denbora batez lanik gabe egon ondoren.

Lokala eta ekipamendua egokitzeko obrak egin ondoren, lokala kalitatezko tokiko produktuen denda bihurtu zuen lehenengo, eta, ondoren, taberna, batarekin bestearen diru-sarrerak osatzeko. Dastaleku txiki honek oinarritzako zerbitzua eskaintzen die Zeberioko bizilagunei. Nekane harro dago egindako bideaz eta beste pertsona bati lana emateaz, etxetik gertu eta berak bizi nahi duen herrian duen negozio batean.

“Suposatu zuen inbertsioa kontuan hartuta, Leader diru-laguntza jaso izan ez banu, ziurrenik Amañe ez litzateke existituko”

Proiektuaren inbertsioa (€): 55.258
Jasotako Leader diru-laguntza (€): 16.617

Leintz-Gatzagako Gatz Museoa

Leintz-Gatzaga (Gipuzkoa)

Leintz Gatzagako Gatzaren Museoa herri berezi batean natura-ondarea berreskuratzeko proiektua da.

“Leintzeko gatzaga berezia da. Iturburu bat dugu, eta bertatik modu naturalean isurtzen da ur gazia; gatzak sortzen da erromatarren garaitik”, dio Aitor Larrañaga museoko kudeatzaileak. “XX. mendeko 70eko hamarkadan, hainbat arrazoiengatik, ekoizpen hori eten egin zen”.

Museoak hiru lan-ildo ditu gaur egun: alde batetik, gatzaren ekoizpena, modu tradizionalean egiten jarraitzen dena; gatzaren kulturaren zabalkundea, bisita gidatuen bidez ekoizpen-prozesua gertutik ikusteko eta haren historia ezagutzeko aukera ematen duena; eta, azkenik, espazioa bera berreskuratzea, duela 30 urte udalak bere gain hartu ondoren.

Proiektuaren inbertsioa (€): 333.929
Jasotako Leader diru-laguntza (€): 168.356



Komunikazioa eta sareak

Azken urteotan, Mendinetek harremanak egin ditu hainbat erakunderekin eta hainbat proiektutan hartu du parte. Hona hemen adibide batzuk:

Euromontana mendi lurraldeen lankidetzak eta garapenerako Europako sektore anitzeko elkartea da. Euskadira egindako bisita teknikoaren barruan, **Mendinetek harrera egin zien Orexan Zuzendaritza Batzordeko kideei**, eta udalak bere udal-proiektua azaldu zuen bertan.

European Network for Rural Development (ENRD) edo Landa Garapenerako Europako Sarea izan da Europako landa-eremuekin lotura izateko gure bide nagusia, eta baita Mendineten egiten diren jarduerak komunikatzeko eta ikusarazteko espazioa ere. Sarearen atariaren bidez, Mendinetek egin duen **nazioarteko lankidetzako lehen proiektuaren** (Smart Rural) berri eman genuen, eta beste herrialde batzuetako Tokiko Ekintza Taldeekin harremanak ezartzeko hasiera izan zen.





Estatu mailan, azken aldi honetan estuki egin dugu lan **Landa Garapenerako Espainiako Sarearekin (REDR)**, sare horretako bazkide eta Zuzendaritza Batzordeko kide baikara. Nabarmentzekoa da **ekintzaileen** proiektuak ikusarazteko modu kolektiboan egin den praktika onen proiektuen bilketa.

Landa Sare Nazionalarekin ere harremana mantendu dugu, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren babespean, jaso ditugun **prestakuntza-ikastaroak eta tailerrak** antolatu dituen erakundearekin.

2019ko udazkenean, **Concilia** proiektuaren barruan, Mendinetek bisita tekniko bat

antolatu zuen Huescako landa-ingurune **emakume ekintzaile** talde batera. Proiektu hori **Monegroseko Garapen Zentroak** koordinatzen zuen – **CEDER Monegros** –, eta landa-eremuko emakumeak ahalduentzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko esperientziak partekatzea zuen helburu.

Tokian-tokian, Mendinet **Euskadiko Familia Nekazaritzako Eskualde Batzordeko (CRAF)** bazkidea izan zen. Batzorde hori Nekazaritza Familiarrarentzako Nazio Batuen Hamarkadaren 2019-2018 esparruan sortu zen, familia-nekazaritza indartzeko eta euskal ekoizle txikien bizitza hobetzeko helburuarekin.

Amaitzeko, **SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak** abiarazitako eta **Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak** kudeatutako **Hazinnova** programaren barruan Mendinetek egindako lana azpimarratu nahi dugu. Doako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua eskaintzen da, lana antolatzeko modu berriak martxan jartzeko edo Euskadiko Enpresa Txiki eta Ertainen (ETE) produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko metodo berriak ezartzen laguntzeko.

2022an sinatutako Berrikuntza Bultzatu eta Garatzeko Lankidetzarako Esparru Hitzarmentetik abiatuta, Mendinet berrikuntzari laguntzeko bitarteko Eragileen Sarean sartu zen, Innobasque-erekin modu aktiboan lankidetzan.

Egindako lanaren ondorioz, **12 enpresak 15 proiektu aktibatzea lortu genuen.**



Bere jardueren artean daude publizitate- eta komunikazio-kanpainak diseinatzea, eztabaidak antolatzea eta erakundeekiko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea.



Lankidetzak- proiektuak

Smart Rural

Landa-eremu adimendu
eta lehiakorak



Smart Rural Europa mailako lankidetzak-proiektu bat da, eta helburu hauek ditu: Smart Village kontzeptua Euskadiko landa-errealitatera egokitzea, ezagutza-trukea erraztea, inplikaturako tokiko eragileak prestatzea eta gaitzea, eta Smart Estrategiak diseinatu eta inplementatzea ahalbidetuko duten prozesu malguak diseinatzea.

Proiektua 2020an hasi zen, Europako Batzordeak abiarazi zuen Smart Rural 21 deialdiarekin batera. Barne-**diagnostiko** batek aukera eman zigun Euskadiko Leader zonako zazpi udalerrri piloturen beharrak eta indarguneak ezagutzeko: **Bilarrek, Kuartangok, Kanpezuk, Oresak, Beizamak, Muxikak eta Enkarterrik** (azken hori hainbat udalerriren elkarte gisa) bat egin zuten proiektuarekin. **Beharrei** dagokienez, kanpo-aholkularitzarik eza, eta ezagutza trukatzeko eta proiektuei ekiteko finantzaketaren beharra nabarmendu zituzten. **Indarguneei** dagokienez, inplikaturako komunitateak direla azpimarratu zuten, zeregin desberdinetan komunitatearen parte-hartzea handia dela, eta pertsona erreferente baten (normalean alkatea) lidergoan oinarritutako gobernantza dutela.

Nazioartean, talde bat osatu genuen, eta lankidetzaz hitzarmen bat sinatu genuen tokiko hiru ekintza-talderekin: Finlandiako **Actiivinen Pohjos-Satakunta**, Irlandako **Wicklow LCDC** eta Poloniako **Kraina Rzek**. Lankidetzaz horri esker, lau herrialdeentzat interesekoak diren lau esparruren inguruko esperientziak partekatu genituen: energia berriztagarriak, e-zerbitzuen bidezko digitalizazioa, gizarte-berrikuntza eta hubs-coworking-ak. Bisita teknikoetan gai horiei lotutako proiektuak bisitatuko genituen.

Tokian-tokian, Tokiko Ekintza Taldeak Smart Estrategia diseinatzeko **laguntza indibidualizatua** eskaini zien zazpi udalerri pilotuei, **Paisaje Transversal** enpresarekin batera egindako lana. Smart Village ikuspegiari, herritarren parte-hartze prozesuei eta proiektuen diseinu eta

inplementazioari buruzko **prestakuntza-jardunaldi tematikoak** ere antolatu genituen. Jardunaldi horiek udalerri pilotu batzuetan egin ziren.

Gainera, **Ansó** udalerriak, Smart Rural 21eko Espainiako irabazleak eta Smart Village ikuspegiarekin lan egiteko moduetan erreferenteak, harrera egin zien Mendineteko ordezkariak bati eta parte hartzen duten erakundeetako udal ordezkariak.

Lankide izan ditugun erakundeek **balorazio** oso positiboa egin dute. Tokian-tokian zein Europa mailan sarean lan egiteko aukera nabarmendu dute; eta baita udal-estrategiak lantzeko metodologia berri batetik ikasteko aukera ere.



Landa-Hiria Hurbilketa

Tokiko nekazaritzaren eta produktuen balioa azpimarratuz

Landa-Hiria Hurbilketa estatu-mailako proiektua da, eta, elikaduran eta landa-eremuan duen protagonismoagatik, nekazaritzako produktuen balorizazioaren, ezagutza-trukearen eta, gizartea sentsibilizatzearen bidez, landaren eta hiriaren arteko lotura sustatzeko sortu zen.

Proiektua 2020an hasi zen, eta ekoizleen eta tokiko merkataritzaren arteko **eskaintza eta eskaria identifikatu eta antolatu** zen, egungo landa-errealitatearen egoera sakonago ezagutzeko.

Tokiko merkataritzaren mapeo baten bidez eta hurbileko produktuekiko posizionamenduaren bidez, proiektuan parte har lezakeen produktu-eskaintza identifikatu eta kuantifikatu genuen, egungo banaketa-sistemak hobetzeko asmoz.

Azkenik, hartutako irtenbidea eskualdeko **ekoizleen katalogoak diseinatzeko eta egiteko gida** bat sortzea izan zen. Landa Garapeneko Elkarrei zuzendutako tresna da, tokiko merkatuetan aktiboki parte hartzen dutenak, eta ekoizleekin hurbileko harremana dutenak.

Katalogo horietan ekoizleen inguruko informazioa jasotzen da, eta herritarrek tokiko produktuei eta produktu horiek ekoizten dituzten pertsonei buruz duten ezagutza hobetzen lagunduko dute.



Helburuak bete ahal izateko, **ARCArekin, Kataluniako Landa Ekimenen Elkartearrekin**, lankidetzak hitzarmen bat sinatu genuen. ARCA lankidetzan aktiboki aritzen den erakundea da.

Elkarlanaren ondorioz, 2021eko udazkenean Katalunia bisitatu genuen, eta, ostean, ARCAko ordezkariak bati harrera egin genion, Euskadiko landa-eremuko ustategi eta proiektu onenetako batzuk gertutik erakusteko.

Proiektu hau hainbat forotan partekatu da, besteak beste, **Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaro batean, “Tokiko elikadura sistema jasangarri eta osasungarria”** izenekoan.

Proiektuaren balorazioa positiboa izan da, beraz, lankidetzak berrietarako aukera zabalik utzi dugu, bai Estatu mailan, eta baita Europa mailan ere.



GUSTUM

NETWORKING ALIMENTARIO

NACEMOS EN 2011

4 EJES DE TRABAJO

- PEDAGOGIA**
 - 60 escuelas
 - Juegos
 - Experiencia inmersiva 44 capítulos
- APOYO A INICIATIVAS TERRITORIALES**
 - Web y promoción
 - Asesoramiento, jornadas
 - Apoyo a colectivos
- ACCIONES DE PROMOCIÓN**
 - Jornadas
 - Campañas
 - Google my business
- ACCIONES CON OTRAS ENTIDADES**
 - Networking
 - Forums
 - Acciones territoriales

ALIMENTA

PROYECTO GLOBAL PARA LA ALIMENTACIÓN SOCIAL

COBERTURA ALIMENTARIA PERSONAS VULNERABLES

ALIMENTACIÓN COMO UN DERECHO

EMERGÍO EN LA CRISIS SANITARIA Y SOCIAL

- En red
- Co-gestionado
- Co-producido

PROVEEDORES: Conexión con lo rural, Trabaja con excedentes

CIUDADANÍA: Ciudadanía

COMIDAS: Comedores, Comida saludable y sostenible

EXTENDER LOS ESPACIOS ALIMENTA

FINANCIACIÓN: Fondos solidarios, Red y tarjetas sociales

CREAR UN INSTRUMENTO JURÍDICO

GO RETA

INCORPORACIÓN DE JÓVENES Y RELEVIO GENERACIONAL

EL 50% DE LA AGRICULTURA PODRÍA DESAPARECER POR LA FALTA DE RELEVIO GENERACIONAL

RED DE ESPACIOS DE TEST AGRARIOS

- Creación
- Articulación
- Dinamización

En colaboración con Extremadura

¿QUÉ ES?

- Incorporación de nuevos agentes a espacios existentes
- Programa de facilitación progresiva
- Formación
- Grupo motor + colaboradores

OBJETIVOS

- Aprender juntos
- Ser un altavoz
- Cooperar para innovar
- Ayudar a construir

ELIKA GUNEA

PUNTO DE ENCUENTRO DE PRODUCTOS LOCALES

FOMENTAR PRODUCTO AGROALIMENTARIO DE EH

REITALIZAR EL MEDIO RURAL

TIENDA ELIKAGUNEA

- Ofrecer productos de forma constante
- Productos de EH: radio de 450km
- 300 socios
- 6 socios trabajadores
- +450 productores
- Reto escasez de producto

VENTA DE ALIMENTOS

COCINA DE TEMPORADA

FORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN

UNIDAD DE MANTENIMIENTO

NEKAZARIAK ESKOLAN

PROFESIONALES DEL SECTOR PRIMARIO SE ACERCAN AL CENTRO ESCOLAR

RECONOCIMIENTO DE LA ACTIVIDAD AGRARIA

CONSUMO AGROALIMENTARIO LOCAL Y SOSTENIBLE

MATERIA

- Agricultura familiar
- Multifuncionalidad
- Modo de producción local y de temporada
- Profesionalidad
- Consumo responsable

EDUCACIÓN PRIMARIA (40-45 años)

LIDERADO POR PROFESIONALES

PARA PROVOCAR

REVISIÓN

CATALOGO DE OBSERVACIÓN

DIÁMETRO ZOO

SERVICIO DE COMIDA SLOW FOOD EN ORONA

QUEREMOS DEMOSTRAR QUE SE PUEDE HACER DE OTRA MANERA

FILOSOFÍA

- Sostenibilidad social y ambiental
- Apoyar baserriarraz de la zona
- Elaboración artesanal
- Producto local de temporada y a poder ser ecológico
- Responsabilidad social
- Buscamos el 5% de beneficios

TRABAJADORAS

COMIDAS

200.000

MENUS

BUSCAMOS EL ACERCAMIENTO RURAL-URBANO

UN PROYECTO VIVO PARA ESTAR MÁS CERCA DE LO QUE PASA

GOBERNANZA PARTICIPATIVA

CO-CREACIÓN CON OTROS AGENTES

CONCLUSIONES

COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA

FLEXIBILIDAD DE LOS PROYECTOS

mendinet

GUSTUM

ELIKADURA NETWORKING-A

2011. URTEAN SORTU GINEN

4 LAN-ARDATZ

- PEDAGOGIA**
 - 60 eskola
 - JokoaK
 - Esperientzia inmersiboa 44 kapitulu
- LURRALDE-IRIMINEI BAKESA**
 - Web eta sustapena
 - Abolubilitate, jardumeldak
 - Kolektiboa babesa
- SUSTAPEN EKINTZAK**
 - Jardumeldak
 - Kampaioak
 - Google my business
- BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN EKINTZAK**
 - Networking-a
 - Forumak
 - Lurralde-ekintzak

ALIMENTA

ELIKADURA SOZIALERKO PROIEKTU GLOBALA

PERTSONA ZURGARRIENTZAKO ELIKADURA ESTALDUKA

ELIKADURA ESKUGIDE GISA PLANTATZEA

OSASUN ETA GIZARTE-KRISIAN SORTU ZEN

- Sarean
- Talde eragile baten bidez, materiala eta aholkuak

LANPOSTUEN DOKUMENTAZIOA

- Landi komertziala
- Solentazioa
- Im. egilea

HERKATZEAK

- Jener. osasungarria eta jasangarria

ALIMENTA GUNE GHIAGO ZABALTZEA

PRESTAKO JARDUEKIN SORRERA

GO RETA

GAZTEAK ETA BELAUNALDI ERRELEBOA

NEKAZARITZAREN %50 DESAGERTU EGIN DAITEKE BELAUNALDI ERRELEBORIK EZ DAGOELAKO

NEKAZARITZAKO TEST GUNEEN SAREA

- Sorrera
- Artikulazioa
- Dinamizazioa

Extremadurarekin lankidetzan

ZER DA?

- Eragile berriak ikendak deuten guneen sortzea
- Programa, errazteak, EH
- Formakuntza
- Talde eragileko ikasleak

HELBURUAK

- Elkarrekin itaska
- Bazterreko izatea
- Berriketa lankidetzan
- Erakilean laguntza

ELIKA GUNEA

TOKIKO PRODUKTUEN TOPAGUNEA

EH-ko NEKAZARITZAKO ELIKAGUNEEN EGINDAKO PRODUKTUAK SUSTATZEA

LANDIA INGURUNEA BIZIBERRITZEA

ELIKAGUNEA DENDA

- Produktuak elingabe, estandize
- EH-ko produktuek: 450 km-ko eremua
- 300 bazterre
- 6 bazterre langile
- 450 ekizale bako gela
- Erakile produktuen urritak

ELIKAGUNEEN SUSTAPEN

GAZTEAKO PRODUKTUEN SUSTAPEN

PRESTAKO JARDUEKIN SORRERA

HERKATZEAK

NEKAZARIAK ESKOLAN

LEHEMENGU SEKTORERKO PROFESIONALEK ESKOLATARA HURBILTZEN DIRA

NEKAZARITZA JARDUEKIN IKUNTZEA

TOKIKO ELIKAGUNEEN KONSUMO JAISANGARRIA

EDUKIA

- Familia nekazaritza
- Funtzio-aniztasuna
- Ekoizpen amolak
- Berriketa eta garakoa
- Profesionaltasuna
- Konsumo arduratsua

LEHEMENGU NEKAZARITZA (40-45 urte)

PROFESIONALEN GIDARITZAEAN

HELEGUEN DA IKUNTZEA

IKUNTZA

REKUNTZEA

IKUNTZEA

DIÁMETRO ZOO

SLOW FOOD JANARI ZERBITZUA ORONAN

BESTE MODU BATARA ERE EGIN DAITEKELA ERAKUTSI NAHI DUGU

FILOSOFIA

- Gazte eta ingurumen jasangarritasuna
- Inguruko baserriarraz babestea
- Artisan elaborkazioa
- Erakile elingabe garrantzi
- Gazte, erakileak
- Ekoizpen %5a lankidetzan

LANGILE

OTORDU

200.000

MENU

LANDA-EREMUA ETA JIRIA HUKBILDU NAHI DITUGU

PROIEKTU BIZIA GERTATZEN DENEK HURBILAGO EGOTEKO

GOBERNANZA PARTIKIPATIBA

BESTE ERAGILE BATZUEKIN BATEA SORTZEA

TOKIKO NEKAZARITZARI ETA PRODUKTUEI BALIOA EMANEZ

ONDORIOAK

LANKIDETZA PÚBLIKO-PRIBATUA

PROIEKTUEN MANTENIMENDUA

mendinet

BAZKIDEEN AKTIBO IDENTIFIKAZIOA SENSIBILITAZIOA ETA IKUNTZEKO LANKIDETZA PROIEKTUA

mendinet

mendinet

2016 | 2020

jarduere memoria